



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

## ENPLEGU-ESKAINNTZA PUBLIKOA, 2018-19

### 2020KO DEIALDIA

**1. Ariketa. 1. proba**

**1. Ariketa. 2. proba**

**2. Ariketa**

**Azterketa Kodea: AG10210**

**Eredua: D**

**Bertsioa: Euskera**

#### **Jarraibideak:**

- \* Ez zabaldu esan arte.
- \* Idatzi NAN zk. eta LETRA, eta bete laukitxoak, irakurketa optikorako.
- \* Idatzi 1. DEITURA, 2. DEITURA, IZENA eta DATA.
- \* AZTERKETA atalean, idatzi goiko aldean ageri den azterketa-kodea.
- \* Probaren iraupena: 120 minutu
- \* 120 galdera, launa erantzun-aukerarekin.
- \* Asmatua: puntu bat (1,00).
- \* Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez dira zigortuko.
- \* Okerrak: EZ DIRA ZIGORTUKO 1etik 80ra artekoak. ZIGORTU EGINGO DIRA 81etik 120ra artekoak (-0,333).
- \* Markatu, erantzun-orrian, egokitu zaizun EREDUA. Aukera baliiodun bakar bana. Bat baino gehiago izanez gero, orokorren edo osoena izango da baliioduna. Enuntziatuan OKERREKOA aukera dadila eskatu ezean, hiru izango baitira zuzenak halakoetan, eta okerra markatu beharko baita.
- \* Ereduaren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen, proba baliogabetu egingo da.
- \* Bukatuko duzunean, eskua altxatu eta bereizi erantzun-orri zuria eta kopia orria. Zuria antolakuntzako langileei eman behar diezu,
- \* Ez da erantzun-orri berririk emango ezta azterketak jasoko ariketaren azken 5 minutuetan. Kasuan, geratu itxaroten azterketaren denbora bukatu arte.
- \* Galderen koadernotxoak, kopia horia eta jarraibideen orria zure esku geratuko dira.
- \* Hautaketa-prozesuen webgunetik deskargatu ahal izango duzu proba honen koadernotxoak, erantzunen behin behineko txantiloiarekin batera 16:00tik aurrera).

Eskerrik asko zure laguntzagatik,

**1. ARIKETA. 1. PROBA.**

30 galdera, launa erantzun-aukerarekin. - ASMATUAK: 1 puntu. - ZURIAK, BIKOITZAK ETA BALIOGABEA: 0 puntu. - OKERRAK: 0 puntu. Eskuineko alboko laukian duzu galdera dagokion gaiaren zenbakia.

**1 Konstituzioaren 22. artikulua babesean eraturako elkartei gagozkielarik:**

- A.- Erregistroan inskribatu behar dira, publizitate-ondoretarako bakarrik.
- B.- Erregistroan inskribatu behar dira, eraginkortasun-ondoretarako bakarrik.
- C.- Ez da nahitaezkoa inskribatzea.
- D.- Erregistroan inskribatu behar dira, eraginkortasun- eta publizitate-ondoretarako.

**2 1978ko Konstituzioaren arabera: (Adierazi OKERREKO erantzuna)**

- A.- Botere publikoek hezkuntza-sistema ikuskatu eta homologatuko dute, legeen betetzea berma dadin.
- B.- Botere publikoek bermatzen dute gizabanako guztien hezkuntza-eskubidea, hezkuntzari buruzko programazio orokorraren bidez, sektore interesdun guztien parte-hartze eragingarriarekin eta ikastetxeak sortuz.
- C.- Oinarrizko hezkuntza nahitaezkoa eta doakoa da.
- D.- Irakasleek, gurasoek eta, hala denean, ikasleek ere, parte hartuko dute ikastetxe guztien kontrol eta kudeaketan, legeak ezartzen dituen mugekin.

**3 Autonomia-erkidegoetako organoen jarduera, eskuordetutako zereginak betetzeari dagokionez, honek kontrolatuko du:**

- A.- Auzitegi Konstituzionalak.
- B.- Gobernuak, Estatu Kontseiluak irizpena eman ondoren.
- C.- Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak.
- D.- Kontu Auzitegiak.

**4 Autonomia-erkidegoek eskumen eskusiboa dute arlo hauetan: (Aukera ezazu erantzun OKERRA)**

- A.- Kultura, ikerkuntza eta, hala denean, autonomia-erkidegoko hizkuntzaren irakaskuntza sustatzea.
- B.- Autonomia-erkidegoaren lurraldearen barruan, turismoa sustatu eta antolatzea.
- C.- Kirola eta aisialdiaren erabilera egokia sustatzea.
- D.- Naziotasuna, immigrazioa, emigrazioa, atzerriartasuna eta asilo-eskubidea.

**5 Euskal Herriko Autonomia Erkidegoari dagokio Estatuaren legeria betearaztea honako gai hauetan: (Aukera ezazu erantzun OKERRA)**

- A.- Jabetza-lerrokatzaileak, Kanbio eta Burtsako agenteak eta Merkataritza-arteakariak izendatzea. Dagozkien barrutiak finkatzen parte hartzea, hala dagokionean.
- B.- Jabetza intelektuala eta industrialia.
- C.- Pisu eta neurriak; metalen kontrastea.
- D.- Lurraldearen eta itsasbazterren antolamendua, hirigintza eta etxebizitza.

**6 Konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa aurkeztea honi dagokio:**

- A.- Eusko Jaurlaritzari.
- B.- Lehendakariari.
- C.- Legebiltzarreko mahaiari.
- D.- Ez dago konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsorik aurkezterik.

**7 Lurraldeen arteko desoreka ekonomikoak zuzentzeko eta elkartasun-printzipioa eragingarritasunez betetzeko:**

- A.- Konpentsazio Funtsa eratuko da inbertsio-gastuetarako; Senatuak funts horren baliabideak banatuko ditu autonomia-erkidegoen artean, eta, egoki bada, probintzien artean ere bai.
- B.- Konpentsazio Funtsa eratuko da inbertsio-gastuetarako; Gorte Nagusiek funts horren baliabideak banatuko dituzte autonomia-erkidego eta probintzien artean, eta, egoki bada, udalerrien artean ere bai.
- C.- Konpentsazio Funtsa eratuko da inbertsio-gastuetarako; Gorte Nagusiek funts horren baliabideak banatuko dituzte autonomia-erkidegoen artean, eta, egoki bada, probintzien artean ere bai.
- D.- Konpentsazio Funtsa eratuko da inbertsio-gastuetarako; Kongresuak funts horren baliabideak banatuko ditu autonomia-erkidegoen artean, eta, egoki bada, probintzien artean ere bai.

**8 Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen aplikazio-arauak —VI. titulua—, hauei aplikatuko zaizkie: (Aukera ezazu erantzun OKERRA):**

4

- A.- Arabako lurralde historikoko kuadrilla, ermandade eta kontzejuei.
- B.- Partzuergoei eta gainerako erakunde instrumentalei, tokiko kapital publikoaren partaidetza nagusitzen bada edo nagusitasunezko lekua toki-erakunde batek badu.
- C.- Udalerriei.
- D.- Udal-enpresa publikoei, artikulua honetan aurreikusitako erakundeek ehuneko 60 baino gehiagoko partizipazio zuzen edo zeharkakoa badute haien kapital sozialesan.

**9 Ohitura, Kode Zibilaren arabera:**

5

- A.- Ordenamendu juridikoaren iturrietako bat da.
- B.- Lege aplikagarriak izan ezean bakarrik baliatuko da.
- C.- Lege aplikagarriak izan ezean bakarrik izango ditu ondorioak, moralaren edo ordena publikoaren kontrakoa ez bada eta frogatua gertatzen bada.
- D.- Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**10 Kode Zibilaren arabera, ezkontzaren ondorioak honako honek arautuko ditu:**

5

- A.- Senarraren lege pertsonalak.
- B.- Emaztearen lege pertsonalak.
- C.- Senarraren edo emaztearen lege pertsonalak, bien artean aukeratuta.
- D.- Ezkontideen lege pertsonal erkideak.

**11 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituena. Udal errolda; auzotarren eskubideak eta eginbeharrak. (Aukera ezazu erantzun OKERRA):**

6

- A.- Atzerritarrek udal erroldan inskribatuta egotea Espainian legezko bizilekua izatearen frogaz izango da, eta indarrean dagoen legediak ematen dizkien eskubideak aitortuko dizkie, bereziki Espainian dauden atzerritarren eskubideen eta askatasunen arloan.
- B.- Udal errolda administrazioaren erregistro bat da, non udalerriko bizilagunak agertzen baitira. Bertako datuak udalerrian bizi izatearen eta ohiko bizilekuaren frogaz dira. Datu horiei buruz egiten diren ziurtagiriak agiri publiko eta fede-emaileak dira, administrazio-ondorio guztietarako.
- C.- Estatuko Administrazio Orokorrak, udalekin eta autonomia-erkidegoetako administrazioekin lankidetzan arituz, bizilekua atzerrian duten espainiarren errolda bat egingo du, eta horri udalerrietako errolda arautzen duen lege honetako arauak aplikatuko zaizkio. Errolda horretan inskribatutako pertsonak beren inskripzioko zehaztasunetan ageri den Espainiako udalerriko auzotar izango dira, botoa emateko eskubidearen ondorioetarako bakarrik, eta inola ere ez dira udalerririk horretako biztanle izango.
- D.- Udalerriko erroldako zehaztasunak doakionaren alde aurreko baimenik gabe emango zaizkie zehaztasunok eska ditzaten beste administrazio publikoei, bakoitzari bere eskumenak betetzeko beharrezkoak dituenen bakarrik, eta bizilekuari zein egoitzari dagokienez zehaztasunok esanguratsua diren gaietarako soil-soilik. Balio dezakete, halaber, estatistikako isilekotasunaren menpeko estatistika ofizialak egiteko, Estatistikako Funtzio Publikoaren maiatzaren 9ko 12/1989 Legean eta gai horren gainean eskumenak dituzten autonomia-erkidegoetako estatistika legeetan aurreikusitako eran.

**12 Populazio handiko udalerrien antolakuntza-erregimena hauei aplikatuko zaie:**

6

- A.- Gutxienez 300.000 bizilaguneko populazioa duten udalerriei.
- B.- Probintzia-hiriburu diren udalerriei, gutxienez 200.000 biztanleko populazioa dutelarik.
- C.- Probintzia-hiriburu, hiriburu autonomiko edo erakunde autonomikoen egoitza diren udalerriei.
- D.- Era berean, gutxienez 100.000 biztanleko populazioa eta zirkunstantzia ekonomiko, sozial, historiko edo kultural bereziak dituzten udalerriei.

**13 Egunetan adierazitako epeak zenbatzeko:**

7

- A.- Lehen eguna egintza jakinarazten denaren biharamuna izango da.
- B.- Lehen eguna egintza argitaratzen denaren biharamuna izango da.
- C.- Lehen eguna administrazio-isiltasunez baiesten edo ezesten denaren biharamuna izango da.
- D.- Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**14 Egintza hauetatik zeinetan ez dago arrazoitzeko obligaziorik, 39/2015 Legearen arabera:**

7

- A.- Epeak luzatzeko direnak.
- B.- Eskubide subjektiboak mugatzen dituztenak.
- C.- Organo aholku-emaileen irizpenetara egokitzen direnak.
- D.- Aurreko jardunetan erabilitako irizpidearekin bat ez datozenak.

**15 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onetsi zeneko urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, hautaketa-sistemei gagozkielarik: (Aukera ezazu erantzun OKERRA)** 8

- A.- Karrerako funtzionarioak hautatzeko sistema orokorrak oposizioa, lehiaketa eta oposizio-lehiaketa izango dira.
- B.- Herri Administrazioek lankidetzaz moduak negoziatu ahal izango dituzte hitzarmen kolektiboen eremu barruan, erakunde sindikalek hautaketa-prozesuen garapenean izan beharreko jarduna ezartzeko.
- C.- Hautaketa-organismoek izangaiak karrerako funtzionario izatera irits daitezten proposatutako onartuen kopurua ezin izango da deialdiko plaza-kopurua baino handiagoa izan, deialdian bertan aurkakorik jasotzen ez bada behintzat.
- D.- Proba psikoteknikoekin osatu ahal izango dira probak.

**16 Enplegatu publikoak, zerbitzu-harremana amaitzea ekarri zuen arrazoi objektiboa desagertutakoan, funtzionario-izaera birgaitzeko eskaera egin ahal izango du, kasu hauetan: (Aukera ezazu erantzun OKERRA):** 8

- A.- Nazionalitatea galdu zuelarik.
- B.- Zerbitzurako ezgaitasun iraunkorra dela-eta, erretiroa hartu zuelarik.
- C.- Desgaikuntza dakarren zigor nagusia edo erantsia ezarri zaiola-eta funtzionario-izaera galdu duelarik, delitua nolakoa den eta zein egoeratan egin den aintzakotzat hartuta.
- D.- Posible den kasuetan, beti ere interesdunak alde aurretik hala eskatzen duelarik.

**17 Laneko Arriskuen Prebentziorako 31/1995 Legean hau ezartzen da, Langileen informazioa, kontsulta eta partaidetza direla eta: (Aukera ezazu erantzun OKERRA)** 9

- A.- Langileen ordezkariak dituzten enpresetan, enpresaburuak ordezkarien bidez emango die langileei lanpostu edo eginkizun jakin batek dituen arriskuen eta arrisku horiei aplikatu beharreko babes- eta prebentzio-neurrien inguruko informazioa.
- B.- Enpresaburuak langileak informatu beharko ditu, eta langile horien partaidetza onartu, laneko segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten alde guztietan.
- C.- Langileek eskubidea izango dute enpresaburuari proposamenak egiteko, enpresako babes- eta segurtasun-mailak hobetze aldera.
- D.- Langileek eskubidea izango dute partaidetza- eta ordezkari-organismoen proposamenak egiteko, enpresako babes- eta segurtasun-mailak hobetze aldera.

**18 Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legean jasotako laneko arriskuen aurrean babes izateko eskubidearen arabera: (Aukera ezazu erantzun OKERRA)** 9

- A.- Langileek eskubidea dute, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan benetako babes izateko.
- B.- Informazio, kontsulta eta partaidetzarako eskubideak, prebentzio-arloko prestakuntzarako eskubidea, arrisku larri eta hur-hurrekoa dagoenean jarduera geldiarazteko eskubidea eta osasun-egoera aztertze eskubidea biltzen dira langileek laneko segurtasun- eta osasun-arloan duten benetako babes-eskubidean.
- C.- Laneko arriskuen aurreko babesak berekin dakar enpresaburuaren babesteko egin beharra.
- D.- Bere zerbitzupuan dauden langileen osasuna bermatu beharko du enpresaburuak, maila orokorrean.

**19 Gasteizko IV. Berdintasun Plana lantzeko azterketa kualitatiboa lantaldeek emandako informazioaren bitartez egin da: (Aukera ezazu erantzun OKERRA)** 10

- A.- Gasteizko talde feministak, berdintasunaren aldeko emakumeen antolakundeak eta LGTBI kolektiboak.
- B.- Gasteizko Udaleko Berdintasun Zerbitzua.
- C.- Gasteizko Udalean erakundea ezagutzen dutelako eta berdintasun-arloan ibilbidea eta eskarmentua dituztelako (bai plangintza estrategikoan, bai parte hartzeari dagokionez, bai lanean) erreferentziakoak diren pertsonak.
- D.- Euskal Estatistika Institutua (EUSTAT).

**20 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen atariko tituluan daude zehaztuta emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko gaur egun nazioartean egokientzat jotzen diren printzipio edo estrategia osagarriak:** 10

- A.- Genero-ikuspegiaren integrazioa eta ekintza positiboa.
- B.- Ekintza positiboa eta ordezkari- proportzionala.
- C.- Genero-ikuspegiaren integrazioa eta sexuaren araberrako rola eta estereotipoak desagerraraztea.
- D.- Guztiak zuzenak dira.

**21** **Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 21. artikuluan araututako aurka egiteko eskubideari gagozkiolarik: (Aukera ezazu OKERRA)** **11**

- A.- Bere egoera partikularren inguruko arrazoiengatik izan ezik, interesdunak eskubidea izango du, edozein unetan, berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko, tratamendu hori oinarritzen bada 6.1 artikuluko e) edo f) letran xedatutakoan, baita xedapen horietan oinarrituriko profilen elaborazioaren aurka ere.
- B.- Tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak tratatzeari utziko dio, salbu eta interesdunaren interes, eskubide eta askatasunen gainetik dauden premiazko arrazoi legitimoak egiaztatzen baditu, edo erreklamazioak formulatu, bideratu eta aldezteko.
- C.- Datu pertsonalen tratamenduaren helburua marketin zuzena bada, interesdunak eskubidea izango du, edozein unetan, berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko, baita xedapen horietan oinarrituriko profilen elaborazioaren aurka ere, baldin eta marketin horrekin lotuta badago.
- D.- Datu pertsonalen tratamenduaren helburua bada ikerketa zientifikoa, historikoa edo estatistikoa, interesdunak eskubidea izango du, bere egoera partikularra dela-eta, edozein unetan, berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko, salbu eta tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

**22** **Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 1. artikulua: (Aukera ezazu erantzun OKERRA)** **11**

- A.- Pertsona fisikoak babestearen inguruko arauak ezartzen ditu, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez.
- B.- Datu pertsonalen zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen ditu.
- C.- Pertsona fisikoen oinarritzko eskubide eta askatasunak babesten ditu, eta, bereziki, datu pertsonalak babesteko duten eskubidea.
- D.- Legea aplikatuko den eremu materiala ezartzen du.

**23** **Zer da Jose Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa?:** **12**

- A.- Hezkuntza eta Kultura Sailaren zerbitzu bat.
- B.- Udal enpresa bat.
- C.- Erakunde autonomo bat.
- D.- Udalaren Musika, Dantza eta Folklore Kontserbatorioaren arlo bat

**24** **Sail honen barruan dago Garbiketa Zerbitzua:** **12**

- A.- Hirigintza.
- B.- Udal Administrazioa eta Eraldaketa Digitala.
- C.- Espazio Publikoa eta Ingurumena.
- D.- Funtzio Publikoa.

**25** **Arreta espezializatuko bulegoak: (Aukera ezazu erantzun OKERRA)** **13**

- A.- Herritarrek arlo bakoitzeko informazio espezifikorako sarbidea duten kanalak dira.
- B.- Udalaren Biltzar Bulegoaren helburu nagusia da hiria biltzarretarako egoitza gisa ezagutarazi eta sustatzea.
- C.- Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak bermatzea du helburu Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak.
- D.- Udalaren enplegu-zentroa zerbitzu espezializatu bat da, gizarte-zerbitzuen udal sarearen osagarri modu subsidiarioan funtzionatzen duena.

**26** **010 telefona: (Aukera ezazu erantzun OKERRA)** **13**

- A.- Opor programako zozketan izena emateko aukera ematen du.
- B.- Gizarte-larrialdietarako zerbitzuekin harremanetan jartzeko aukera ematen du, haien laguntza behar den edozein larrialdi egokituz gero.
- C.- Udalari iradokizunak, kekek, alegazioak eta errekursoak aurkezteko aukera ematen du.
- D.- Udal zergak ordaintzeko banku-helbideratzeak egin nahiz baliogabetzeko aukera ematen du.

**27** **Zer dira automatikoki jardun dezan programatutako informatika-aplikazio baten emaitzaren ondorioz ematen diren administrazio-egintzak, pertsona batek zuzenean parte hartu beharrik izan gabe gauzatuak?:** **14**

- A.- Administrazio-jardun automatizatuak.
- B.- Egoitza elektronikoko administrazio-egintzak.
- C.- Ziurtagiri bidezko jardunak, egoitza elektronikoan.
- D.- Ziurtagiria harpidetzen duen administrazio-atalaren egintzak.

**28 Egoitza elektronikoa. Identifikazio digitalerako bitartekoak. (Aukera ezazu erantzun OKERRA)** **14**

- A.- B@kQ.
- B.- NAN elektronikoa.
- C.- IZENPE txartel berdea (herritarrek).
- D.- Herritarren Udal Txartela (HUT)

**29 Herritarren partaidetza. (Aukera ezazu erantzun OKERRA)** **15**

- A.- Gizartearen partaidetza-gaitasunari zentzua emateko beharraz jabetuta dago Udala.
- B.- Herritarren partaidetza onartu, bermatu eta sustatzen du Udalak.
- C.- Baldin eta talde eta foroen bitartez gauzatzen bada onartzen da partaidetza hori.
- D.- Gizarte-gaien, kulturaren, hezkuntzaren, kirolaren, ekonomiaren, kontsumitzaileen eskubideen, lan-kontuen, berdintasun-politiken eta besteren inguruan bilduko dira foro horiek.

**30 Herritarren partaidetza. Udalerriko partaidetza-organo guztiak ordezkatzan dituen foroari honela deitzen zaio:** **15**

- A.- Elkargune.
- B.- Auzogunea.
- C.- Gizarte-kontseilua.
- D.- Herritarren txanda.

- 1. ARIKETA. 2. PROBA.**
- 50 galdera, launa erantzun-aukerarekin. - ASMATUAK: 1 puntu. - ZURIAK, BIKOITZAK ETA BALIOGABEA: 0 puntu. - OKERRAK: 0 puntu. Eskuineko alboko laukian duzu galdera dagokion gaiaren zenbakia.
- 
- 31 Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen arabera, toki-erakundetzat joko dira: (Aukera ezazu OKERRA)**  1
- A.- Udalerria.  
B.- Kontzejuak eta udalerrarena baino eremu txikiagoko beste lurralde-erakundeak, lurralde bakoitzean dagoen foru-araudian eta toki-araubidearen gaineko oinarrizko legerian ezarritakoaren arabera.  
C.- Probintziak.  
D.- Udalerrien mankomunitateak.
- 
- 32 Hauek dira udalen eta gainerako toki-erakundeen zuzendaritza politikoa eta gobernu-ekintza gidatzen dituzten printzipioak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean jasoak: (Aukera ezazu erantzun OKERRA)**  1
- A.- Toki-autonomiaren printzipioa.  
B.- Finantza-autonomiaren printzipioa.  
C.- Autoantolaketaren printzipioa.  
D.- Hurbiltasun-printzipioa.
- 
- 33 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen arabera, administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna izango dute: (Aukera ezazu OKERRA)**  2
- A.- Pertsona fisiko edo juridikoek, kasu guztietan.  
B.- Ukituen taldeek, nortasun juridikorik gabeko batasun eta entitateek, legeak espresuki hala adierazten duenean.  
C.- Adingabeek, beren eskubideez baliatzeko eta interesen alde egiteko, juridikoki hori guraso-ahala, tutoretza edo kuradoretza duen pertsona gabe egin dezaketan kasuetan.  
D.- Ondare independente edo autonomoek, legeak espresuki hala adierazten duenean.
- 
- 34 Estatuaren Administrazio Orokorraren Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa:**  2
- A.- Ahalordetzeen erregistro nagusia da, Estatu mailan.  
B.- Ahalordetzeen erregistro partikular bat da, Estatu mailan.  
C.- Organismo bateko izapide espezifikoak egiteko emandako ahalordeak inskribatzen diren erregistro bat da.  
D.- Erregistro bat da, non inskribatzen baitira, gutxienez, administrazio-prozedura bateko interesdunak administrazio publikoen aurrean beraren izenean jarduteko ordezkari baten alde apud acta, aurrez aurre edo elektronikoki, emandako izaera orokorreko ahalordetzeak. Ez du jasotzen ahalordearen askiestea.
- 
- 35 Interesdunek erabakitzen badute bitarteko elektronikoen bidez izatea harremana administrazio publikoekin, sinadurarako baliozkotzat joko dira:**  3
- A.- Sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoko kualifikatueta oinarritzen diren sistemak, "ziurtapen-zerbitzuen emaileen konfiantzako zerrendan" sartuta dauden emaileek jaulkiak.  
B.- Zigilu elektronikoko kualifikatuko eta zigilu elektronikoko aurreratuko sistemak, zigilu elektronikoko ziurtagiri elektronikoko kualifikatueta oinarrituak, "ziurtapen-zerbitzuen emaileen konfiantzako zerrendan" sartuta dauden emaileek jaulkiak.  
C.- Gako itunduko sistemak eta administrazio publikoek baliozkotzat jotzen duten beste edozein, ezartzen diren termino eta kondizioetan, baldin eta alde zurretik beren identitatea bermatzeko aukera ematen duen erregistro bat badute erabiltzaile gisa, Lurralde Politikaren eta Funtzio Publikoaren Ministerioko Administrazio Digitalaren Idazkaritza Nagusiak baimendu ondoren.  
D.- Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 
- 36 Interesdunen batek ez badauzka bitarteko elektronikoa:**  3
- A.- Funtzionario publiko batek egin ahal izango du, balio osoz, hura administrazio-prozeduran identifikatzeko izapidea, baldin eta delako funtzionarioa berariaz ados ageri bada.  
B.- Funtzionario publiko batek egin ahal izango du, balio osoz, haren sinadura elektronikoa administrazio-prozeduran, baldin eta identifikatu eta sinatzeko gaitutako funtzionarioak ageri diren erregistroan badago delako funtzionarioa.  
C.- Funtzionario publiko batek egin dezake, balio osoz, hura administrazio-prozeduran identifikatzeko edo sinadura elektronikoa emateko izapidea.  
D.- Modu presentzian erlazionatu beharko du administrazioarekin.

**37** **Administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna dutenek eskubide hauek dituzte haiekiko harremanetan: (Aukera ezazu erantzun OKERRA)**

4

- A.- Administrazio publikoekin komunikatzea Administrazioaren irispide-puntu elektronikoro baten bitartez.
- B.- Baliabide elektronikoak erabiltzerakoan laguntza jasotzea administrazio publikoekiko harremanetan.
- C.- Espainiar lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabiltzea.
- D.- Informazio publikora, artxiboetara eta erregistroetara irispidea izatea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera.

**38** **Administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko eskubidea eta betebeharra honetan datza:**

4

- A.- Pertsona fisikoek noiznahi erabaki dezakete beren eskubideak eta betebeharrak baliatzeko administrazio publikoekin komunikatzean bitarteko elektronikoak erabili edo ez, non eta ez dauden behartuak administrazio publikoekiko harremana bitarteko elektronikoen bidez izatera.
- B.- Administrazio publikoekin komunikatzeko aukeratu duen bidea noiznahi aldatu ahal izango du norberak.
- C.- Administrazioek haiekin harremana nahitaez bitarteko elektronikoz izan beharra ezarri ahal izango dute zenbait prozeduratarako eta pertsona fisikoen multzo batzuentzat, haien gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo bestelako arrazoiengatik egiaztaturik badago behar diren bitarteko elektronikoetarako irispidea eta eskuragarritasuna badutela.
- D.- Pertsona juridikoek bitarteko elektronikoen bidez jarri beharko dute harremanetan administrazio publikoekin administrazio-prozedura baten barruko edozein izapide egiteko.

**39** **Bakarrarentzat indargabetu ezinaren printzipioaren arabera –Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 37. artikulua–:**

5

- A.- Administrazio-ebazpen partikularrek ezin dute urratu xedapen orokor batean ezarritakoa, salbu eta xedapen orokorra eman zuenaren maila bereko edo hierarkian goragoko organo batenak badira.
- B.- Deusezak dira erregelamendu-xedapen batean ezarritakoa urratzen duten administrazio-xedapenak, salbu eta 47. artikuluan jasotako kausetako batean sartzen badira.
- C.- Administrazio-ebazpen partikularrek ezin dute urratu xedapen orokor batean ezarritakoa, nahiz eta xedapen orokorra eman zuenaren maila bereko edo hierarkian goragoko organo batenak izan.
- D.- Administrazio Zuzenbideari dagozkion administrazio publikoen egintzak lege honetan xedatutakoaren arabera izango dira bete beharrekoak.

**40** **Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 46. artikuluari gagozkiolarik – Jakinarazpen eta argitalpenen abisua–, adieraz ezazu okerrekoa:**

5

- A.- Interesdunaren iritziz egintza bat iragarki bidez jakinarazteak edo hura argitaratzeak kalte egiten badie bere eskubide edo interesei, jakinarazpena posta ziurtatuaren bitartez egin dezala eskatu ahal izango dio administrazioari.
- B.- Eskumena duen organoaren iritziz, egintza bat iragarki bidez jakinarazteak edo argitaratzeak eskubideei edo bidezko interesei kalte egiten badie, dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko du labor-labor egintzaren edukia, eta ezarritako epean interesdunek nora jo behar duten eduki osoa jakiteko eta jakinaren gainean daudela jasoarazi ahal izateko.
- C.- Administrazio publikoek beste jakinarazpen-modu batzuk ezarri ahal izango dituzte, aukeran, aldizkari ofizialeko argitalpena ordezkatzeko, eskubide eta interes legitimoak kaltetzen badira nahiz kaltetzen ez badira ere.
- D.- Egintza baten argitalpena dagokion aldizkari ofizialean egin beharko da beti, eta testu osoa jaso beharko du, dagokion administrazioak aukeran ezartzen duen beste jakinarazpen-modu osagarri batez gain.

**41** **Prozedura hasi ondoren, ebazteko eskumena duen administrazio-organismoak, ofizioz edo alderdi batek eskaturik eta modu arrazoituan, ebazpenaren efikazia ziurtatzeko egoki deritzen behin-behineko neurriak har ditzake, horretarako datu nahikoa baldin baditu, printzipio honen arabera: (Aukera ezazu OKERRA)**

6

- A.- Proporzionaltasuna.
- B.- Eraginkortasuna.
- C.- Kalterik txikiena.
- D.- Efikaziarik handiena.



**42** **Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen arabera, zein agiri mota erabiltzen dute interesdunek administrazio publiko eskudunari beren identifikazio-datuak jakinarazteko, edo jarduera bat hasteko edo eskubide bat baliatzeko esanguratsua den beste edozein datu:**

6

- A.- Erantzukizunpeko adierazpena.
- B.- Jakinarazpena.
- C.- Salaketa.
- D.- Komunikazioa.

**43** **Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9koa 19/2013 Legearen 12. artikuluan jasota dagoenez:**

7

- A.- Pertsona orok du informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 105.B.- artikuluan aurreikusitako baldintzetan.
- B.- Pertsona orok du informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 105.B.- artikuluan xedatutako eta lege honetan garatutako baldintzetan.
- C.- Pertsona orok du informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 5. artikuluan xedatutako eta lege honetan garatutako baldintzetan.
- D.- Pertsona orok du informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, Toki Erakundearen 27/2016 Legearen aurreikusitako baldintzetan.

**44** **Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9koa 19/2013 Legearen 14. artikuluan jasota dagoenez: (Aukera ezazu OKERRA)**

7

- A.- Informazioa eskuratzeko eskubidea mugatu ahal izango da, informazio hori eskuratzek kalteren bat eragiten badie segurtasun nazionalari, defentsari edo kanpo-harremanei.
- B.- Informazioa eskuratzeko eskubidea mugatu ahal izango da, informazio hori eskuratzek kalteren bat eragiten badie interes ekonomiko eta komertzialei, ekonomia- eta moneta-politikari, sekretu profesionalari edo jabetza intelektual eta industrialari.
- C.- Informazioa eskuratzeko eskubidea mugatu ahal izango da, informazio hori eskuratzek kalteren bat eragiten badie ekonomia- eta moneta-politikari, sekretu profesionalari eta jabetza intelektual eta industrialari, erabakiak hartzeko prozesuetarako beharrezko konfidentzialtasunaren edo sekretuaren bermeari edo ingurumenaren babesari.
- D.- Informazioa eskuratzeko eskubidea ezingo da inoiz mugatu.

**45** **Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 64. artikulua arabera:**

8

- A.- Oro har, eskatzaileak aukeratutako modu eta formatuan emango da eskatutako informazio publikoa, eta, ezer esan ez badu, bitarteko elektronikoz egingo da, ahal den guztietan.
- B.- Eskatutako informazioa formatu elektronikoa emango da beti.
- C.- Oro har, administrazioak aukeratutako modu eta formatuan emango da eskatutako informazio publikoa, hura dagoen euskarriaren formatuaren arabera.
- D.- Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**46** **Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 63. artikulua arabera, informazio-eskaeran ebazpena:**

8

- A.- Gehienez bi hilabeteko epean jakinarazi beharko da, eskaera jasotzen denetik. Eskatutako informazioaren bolumena edo konplexutasuna dela eta beharrezko izanez gero, epea luzatzerik izango da, berorren erdia adina. Kasu horretan, lehen hamar egunetan komunikatu beharko zaio eskatzaileari epea luzatu egin dela, eta hori justifikatzen duen arrazoia.
- B.- Gehienez hilabeteko epean jakinarazi beharko da, eskaera jasotzen denetik. Eskatutako informazioaren bolumena edo konplexutasuna dela eta beharrezko izanez gero, epea luzatzerik izango da, berorren bikoitza adina. Kasu horretan, lehen hamabost egunetan komunikatu beharko zaio eskatzaileari epea luzatu egin dela, eta hori justifikatzen duen arrazoia.
- C.- Gehienez hilabeteko epean jakinarazi beharko da, eskaera jasotzen denetik. Epe hori luza daiteke beste horrenbeste, eskatutako informazioaren bolumenagatik edo konplexutasunagatik behar izanez gero. Kasu horretan, lehen hamar egunetan komunikatu beharko zaio eskatzaileari epea luzatu egin dela, eta hori justifikatzen duen arrazoia.
- D.- Gehienez hilabeteko epean jakinarazi beharko da, eskaera jasotzen denetik, eta epe hori ezingo da luzatu, inolaz ere.

**47** **Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 3. artikulua arabera, lege horren ondorioetarako, entitate hauek osatzen dute sektore publikoa: (Aukera ezazu OKERRA)**

9

- A.- Estatuko Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoetako administrazioak, Ceuta eta Melilla hiri autonomoak eta Toki-administrazioa osatzen duten erakundeak.
- B.- Nortasun juridiko propioa duten partzuergoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak eta toki-araubideak aipatzen dituztenak, bai eta aduanei buruzko legeriak araututako partzuergoak ere.
- C.- Nortasun juridikoa duten funtsak.
- D.- Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateak.

**48** **Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 5. artikulua arabera, Lege horren eremutik kanpo geratzen dira: (Aukera ezazu OKERRA)**

9

- A.- Ekipamendu militar sentikorrekin zuzenean lotutako obrak eta zerbitzuak direla-eta beste estatu bati adjudikatzen zaizkion emakidak, edo berariaz xede militarrik dituzten obrak eta zerbitzuak, edo obra eta zerbitzu sentikorrek.
- B.- Segurtasunaren edo defentsaren eremuan egiten diren obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuak, Sektore Publikoko Defentsa eta Segurtasun arloko Kontratuen abuztuaren 1eko 24/2011 Legearen aplikazio-eremuan daudenean.
- C.- Halaber, kanpoan geratzen dira obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak, segurtasunaren eta defentsaren eremuan egiten direnak.
- D.- Halaber, kanpoan geratzen dira obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak, segurtasunaren eta defentsaren eremuan egiten direnak, legez finkatutako zirkunstantziak egokitzen direlarik.

**49** **Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 13. artikulua arabera, obratzat joko da: (Aukera ezazu OKERRA)**

10

- A.- Obra-kontratuak obra oso bati buruzkoak izango dira, eta obra osotzat erabilera orokorrerako edo kasuan kasuko zerbitzurako entrega daitekeena hartuko da –hori ez da eragozpena izango gero hartan zabalpenak egin ahal izateko–, eta obra hori erabiltzeko behar diren elementu guzti-guztiak edukiko ditu.
- B.- Proiektu independenteen bitartez finkatutako obrak kontratatu ahaliko dira, obra oso baten ataletako bakoitzari dagozkionak, baldin eta atal horiek modu independentean erabili badaitezke erabilera orokorraren edo zerbitzuaren zentzuan, edo substantzialki definitu badaitezke eta aipatutako kontratazioaren komenigarritasuna oinarritzen duen baimen administratiboa eman badu aurrez kontratazio-organoak.
- C.- Obra-kontratuak egin ahaliko dira, obra oso bati buruzkoak izan gabe, lege honen 30. artikulua 4. apartatua aurreikusitako kasuetan, obra osoaren erantzukizuna Administrazioarena denean, Administrazio Publikoak berak egingo dituen obren kasu bat izateagatik.
- D.- Obra-kontratuak obra oso bati buruzkoak izango dira, eta obra osotzat erabilera orokorrerako edo kasuan kasuko zerbitzurako entrega daitekeena hartuko da –hori ez da eragozpena izango gero hartan zabalpenak egin ahal izateko–, eta obra hori erabiltzeko behar diren elementuen gutxienez % 90 edukiko ditu.

**50** **Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 16. artikulua arabera: (Aukera ezazu OKERRA)**

10

- A.- Hornidura-kontratuak dira lehen mailako energia edo energia eraldatua eskuratzea objektutzat daukatenak.
- B.- Hornidura-kontratuak da produktu edo ondasun higigarriak eskuratzea, finantza-errentamenduan hartzea edo erosteko aukerarekin zein gabe errentan hartzea duena objektutzat.
- C.- Lehen mailako energia edo energia eraldatua eskuratzea objektutzat daukatenak.
- D.- Obretako bakoitzak eduki behar dituen elementuek eskatzen dituzten lehengoratzetan eta konponketa-lan handiak; hain zuzen ere, obra horien bitartez eman behar diren zerbitzuak eta gauzatu behar diren jarduerak eskakizun ekonomiko eta sozialen arabera eman eta gauzatu ahal izateko.

**51** **Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudia onetsi zeneko 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 24. artikulua arabera, dirulaguntzat jotzen da:**

11

- A.- Korporazioek toki-erakundearen kontura ematen duten zuzeneko edo zeharkako laguntza oro; besteak beste, bekak, primak, sariak eta laguntza pertsonaleko gainerako gastuak.
- B.- Korporazioek toki-erakundearen kontura ematen duten zuzeneko edo zeharkako laguntza oro, ekonomikoki balioets daitekeena; besteak beste, bekak, primak, sariak eta laguntza pertsonaleko gainerako gastuak.
- C.- Korporazioek toki-erakundearen kontura ematen duten zuzeneko edo zeharkako laguntza oro, ekonomikoki balioets daitekeena, salbu eta bekak, primak, sariak eta laguntza pertsonaleko gainerako gastuak.
- D.- Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**52 Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudia onetsi zeneko 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 26. artikulua arabera, arau hauek aintzat hartu beharko dira dirulaguntzak ematean: (Aukera ezazu OKERRA)** **11**

- A.- Borondatezkoak eta aldi batekoak izango dira, legez edo arauz xedatzen dena salbu delarik.
- B.- Edonoiz baliogabetu edo murriztu ahal izango ditu Korporazioak, kontrako klausularik ezean.
- C.- Aurrekari gisa aipatu ahal izango dira.
- D.- Ez dira, inola ere, aplikatzekoak diren jardueraren kostuaren ehuneko berrogeita hamarretik gorakoak izango.

**53 Kaleetatik ikus daitezkeen propaganda-kartelak jartzeko hau eskatzen da:** **12**

- A.- Jarduera-lizentzia.
- B.- Lurzorua okupatzeko lizentzia.
- C.- Hirigintza-lizentzia.
- D.- Ez da lizentziarik behar.

**54 Honelakoetan, hirigintza-lizentzia eskatu beharra dago: (Aukera ezazu OKERRA)** **12**

- A.- Lurpeko instalazioak.
- B.- Behin-behineko erabilerak eta obrak.
- C.- Landa-lurren zatikatzeak.
- D.- Kaleetatik ikus daitezkeen propaganda-kartelak jartzea.

**55 Jarduera sailkaturako lizentzia behar dute: (Aukera ezazu OKERRA)** **13**

- A.- Ostalaritza-establezimenduak, jatetxeak eta jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-jardueretarako beste establezimendu batzuk, baldin eta, betiere, 500 lagun edo gehiagorentzako edukiera badute.
- B.- Azaleraren tratamenduak, pistola bidezko bernizatze- eta pintatze-lanak edo antzekoak egiten dituzten tailerrak, baita motordun ibilgailuak mantentzeko eta konpontzeko lanak eta antzekoak egiten dituztenak ere.
- C.- Hainbat tailer eta lantegi (aroztegiak, galdaragintza-tailerrak, muntaia-tailerrak, mekanizaziokoak, okindegiak, gozotegiak, cateringak...), baldin eta instalatutako potentzia totala (mekanikoa eta elektrikoa, argiarena kenduta.- 25 kW-ekoa edo handiagoa bada eta ekoizpenerako azalera 300 m<sup>2</sup>-tik gorakoa.
- D.- Industriak, oro har.

**56 Jarduera sailkaturako lizentzia behar dute: (Aukera ezazu OKERRA)** **13**

- A.- Ostalaritza-establezimenduak, jatetxeak eta jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-jardueretarako beste establezimendu batzuk, baldin eta, betiere, 300 lagun edo gehiagorentzako edukiera badute.
- B.- Azaleraren tratamenduak, pistola bidezko bernizatze- eta pintatze-lanak edo antzekoak egiten dituzten tailerrak, baita motordun ibilgailuak mantentzeko eta konpontzeko lanak eta antzekoak egiten dituztenak ere.
- C.- Hainbat tailer eta lantegi (aroztegiak, galdaragintza-tailerrak, muntaia-tailerrak, mekanizaziokoak, okindegiak, gozotegiak, cateringak...), baldin eta instalatutako potentzia totala (mekanikoa eta elektrikoa, argiarena kenduta.- 25 kW-ekoa edo handiagoa bada eta ekoizpenerako azalera 300 m<sup>2</sup>-tik gorakoa.
- D.- Edozein motatako lurzoruan kokatutako erregai likido eta gaseosoak biltzeko instalazioak, 100.000 litrotik gora badute.

**57 Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen 167. artikulua arabera, programen araberrako sailkapenak maila hauek izango ditu: (Aukera ezazu erantzun OKERRA)** **14**

- A.- Lehena, gastu-arloari dagokiona.
- B.- Bigarrena, gastu-politikari dagokiona.
- C.- Hirugarrena, arlo-multzoei dagokiona, zein programatan banatuko baitira.
- D.- Sailkapen hori maila gehiagotan hedatu ahal izango da, azpiprogramei dagozkietan.

**58 Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen 169. artikulua arabera —behin betiko onespena eta indarrean jartzea—:** **14**

- A.- Aurrekontu orokorra zein ekitalditan aplikatu behar den, aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen eman behar dio behin betiko onespena Udaltzatzen Ogasun Batzordeak.
- B.- Aurrekontu orokorra zein ekitalditan aplikatu behar den, aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen eman behar dio behin betiko onespena Udaltzatzen.
- C.- Aurrekontu orokorra zein ekitalditan aplikatu behar den, urte horretako urtarrilaren 31 baino lehen eman behar dio behin betiko onespena Udaltzatzen Ogasun Batzordeak.
- D.- Aurrekontu orokorra zein ekitalditan aplikatu behar den, aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen eman behar dio behin betiko onespena Gobernu Batzarrek.

**59 Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 110. artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko ogasunen jarduna printzipio hauen arabera izango da:** **15**

- A.- Finantza-nahikotasuna, hau da, toki-ogasunek behar beste baliabide izan beharko dute lege honek eta Estatuko beste lege batzuek modu eskusiboan ematen dizkieten eskumenak gauzatzeko.
- B.- Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-jasangarritasuna. Horrek, defizit publiko, zor publiko eta gastu-arauei dagokionez ezarritako errekerimenduak betetzea ekarriko du, gai horien inguruko legeria orokorrekin eta, bereziki, Estatuko administrazioak hartarako onartutako arau bereziki bat etorrita.
- C.- Finantza-nahikotasuna, hau da, toki-ogasunek behar beste baliabide izan beharko dute lege honek modu eskusiboan ematen dizkien eskumenak gauzatzeko.
- D.- Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-jasangarritasuna. Horrek, defizit publiko, zor publiko eta gastu-arauei dagokionez ezarritako errekerimenduak betetzea ekarriko du, gai horien inguruko legeria orokorrekin eta, bereziki, lurralde historikoetako foru-organoei hartarako onartutako arau bereziki bat etorrita.

**60 Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 109. artikulua ezarritakoaren arabera:** **15**

- A.- Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek eta gainerako toki-erakundeek ekonomiaren arloan izango dituzten eskubideen multzoak osatuko du euskal tokiko ogasuna.
- B.- Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek eta gainerako toki-erakundeek ekonomiaren arloan izango dituzten betebeharren multzoak osatuko du euskal tokiko ogasuna.
- C.- Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek eta gainerako toki-erakundeek izango dituzten eskubide eta betebeharren multzoak osatuko du euskal tokiko ogasuna.
- D.- Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek eta gainerako toki-erakundeek ekonomiaren arloan izango dituzten eskubide eta betebeharren multzoak osatuko du euskal tokiko ogasuna.

**61 Ordezkaritza orekatua izango da epaimahaietan edo antzeko organoetan: (Aukera ezazu OKERRA)** **16**

- A.- Bi sexuak ordezkatuta badaude, hura osatzen duten pertsonen kopurua edozein delarik ere.
- B.- Lau kide baino gehiagoko organoetan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza badu.
- C.- Bi sexuak ordezkatuta badaude, hiru pertsonak osatutako organoetan.
- D.- Lau kideko organoetan, bi sexuak ordezkatuta badaude.

**62 Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntzeko arreta eta babesaren inguruan, euskal administrazio publikoak behartzen dituzten hainbat neurri ezarri ziren 4/2005 Legean: (Aukera ezazu OKERRA)** **16**

- A.- Prestakuntza espezializatua ematea emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzeko eta babesa emateko dauden polizia kideei.
- B.- Behar diren bitartekoak jartzea etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei aholkularitza juridiko espezializatua, doakoa, berehalakoa, integrala eta irisgarria bermatzeko.
- C.- Laguntza juridiko eta psikologiko urgentea, doakoa, espezializatua, deszentralizatua eta irisgarria bermatzea etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei.
- D.- 20.000 biztanletik gorako udalerrietan eta biztanle-kopuru hori gainditzen duten mankomunitateetan —zerbitzuak emateko eratuta dauden nahiz eratzten direnetan— harrera berehala egiteko gutxienez zerbitzu bat —urte osoan eguneko hogeita lau orduetan funtzionatzen duena— badela bermatzea.

**63 Herritarren postontzia. Honela deitzen zaio Herritarren Postontzian jasotzen diren kexa, iradokizun, ohar eta eskariak sailkatzeko lehen mailari:** **17**

- A.- Gaia.
- B.- Tema.
- C.- Arloa.
- D.- Eskaera edo kexa.

- 
- 64 Herritarren postontzia. Iruzkinak egiteko identifikazioa.** 17
- A.- Ez dago identifikatu beharrik, postontzian iruzkinak egiteko.  
B.- Identifikatu beharra dago, NANarekin eta izen-deiturekin.  
C.- Identifikatu beharra dago, HUTarekin edo ziurtagiri digital batekin.  
D.- Identifikatu beharra dago, ziurtagiri digital batekin.
- 
- 65 Zer da udal-errolda? (Aukera ezazu OKERRA)** 18
- A.- Administrazio-zerrenda bat.  
B.- Udalerriko bizilagunak jasota dauden erregistroa.  
C.- Egoitza udalerrian edukitzearen froga da.  
D.- Ohiko bizilekuaren froga.
- 
- 66 Errolda. EBGEBKA laburtzapenak honi egiten dio erreferentzia:** 18
- A.- Etxebizitza berean bizi diren pertsonen identifikazio-zenbakiari.  
B.- Egoitza-baimen iraunkorrik edo iraupen luzekorik gabeko Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrei.  
C.- Zerbaiten gaineko jabetza-eskubidea —bereziki, ondasun higiezinaren gainekoa— duen pertsonari.  
D.- Besteak beste, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarrei.
- 
- 67 HUT. Herritarren Udal Txartela (HUT): (Aukera ezazu OKERRA)** 19
- A.- Gasteizko Udalak jaulkitzen duen txartel bat da, norberak nahiz beste inork erabiltzekoa, titularra udal zerbitzu eta tramite jakin batzuetarako identifikatzea helburua duena.  
B.- Lehenengo aldiz jaulkitzen delarik doakoa da.  
C.- Gasteizko Udalak ematen dituen zerbitzuak modu bizkor eta seguruan baliatzeko premia duen edonork eska dezake.  
D.- Ez da beharrezkoa hirian erroldatuta egotea, eskabidea tramitzeko.
- 
- 68 Herritarren Udal Txartela. Tramiteak, webgunean, HUTarekin: (Aukera ezazu OKERRA)** 19
- A.- Norberaren ordainagiri eta isunak kontsultatu: zenbatekoa; egoera, ordainketari dagokionez.  
B.- Norberaren errolda-agiria eskuratu.  
C.- Gasteizko Udalean ezkontza zibila egiteko eskabidea egin.  
D.- Zozketetan parte hartu.
- 
- 69 Diru-bilketa. Epeka ordaintzeko aukera ematen du ordenantza fiskalak, berandutze-interesik gabe: (Aukera ezazu OKERRA)** 20
- A.- Zenbatekoa 6.000 eurokotik beherakoa bada.  
B.- Epea 9 hilabetetik beherakoa bada.  
C.- Baldin eta ordainketa urte naturalean egiten bada.  
D.- Ondasun higiezinaren gaineko zergaren, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eta hondakinak bildu eta suntsitzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasaren likidazioei dagokionez bakarrik.
- 
- 70 Diru-bilketa: Zerga eta prezio publikoen ordainketa. Premiamendu-probidentzia: (Aukera ezazu OKERRA)** 20
- A.- Diru-bilketa Zerbitzuaren premiamendu-probidentziaren bitartez abiarazten da premiamendu-prozedura.  
B.- Epaia judizialaren indar betearazle bera du premiamendu-probidentziak, eta ez dago aurkaratzerik.  
C.- Ordaintzera behartuta daudenen ondasunen eta eskubideen kontra jarduteko titulu betearazlea da premiamendu-probidentzia.  
D.- Premiamendu-prozedurako zenbait jardueraren baliogabetasuna deklaritzen delarik, baliogabetasun-kausak eragiten ez dienak kontserbatzea xedatuko da.
- 
- 71 Udalaren webgunea: Testuinguru-menuak hemen daude kokatuta:** 21
- A.- Goiburuan.  
B.- Orriaren gorputzean.  
C.- Eskuineko alboko menuan.  
D.- Orri-oinean.
-

- 72 Udalaren webgunea: Edukiak eta gida-fitxak. (Aukera ezazu OKERRA)** 21
- A.- Kudeatzaileak sortutako edukiak gai oso desberdinen ingurukoak dira, eta antzeko tipologiakoak.  
B.- Gai-arlo edo gaien arabera sailkatzen dira eduki guztiak.  
C.- Gai-arloen gida-fitxek hauek dituzte ezkerreko zutabeetan: berriak, ohiko galderak, izapideak eta araudia.  
D.- Gai-arloen gida-fitxek hauek dituzte eskuineko zutabeetan: GEO Vitoria, Agenda eta Herritarren postontzia.
- 
- 73 Arreta Leihorako sarbidea (EVA). Helburuak: (Aukera ezazu OKERRA)** 22
- A.- Administrazio-prozedura bakoitzari buruzko informazioa biltzea.  
B.- Emandako dokumentazioaren frogagiria jaulkitzea, aurkezten duenarentzat.  
C.- Udalak jaulkitako dokumentazioa jaso, digitalizatu eta erregistratzea erraztea herritarrei.  
D.- Dosierrak kontsultatzea.
- 
- 74 Arreta Leihorako sarbidea (EVA). Aplikazioaren menutik egin daitezkeen ekintza nagusiak. (Aukera ezazu OKERRA)** 22
- A.- Sarrerak kudeatu, herritarrei prozedura bati edo gehiagori buruzko informazioa emateko.  
B.- Sarrerak kudeatu, dokumentazioa erregistratzeko —behar izanez gero, dossier bat irekitzeko aukera ematen du, edo lehendik dagoen dagoen bati dokumentazioa gehitzeko—.  
C.- Sarrerak kontsultatu, dossier bat kontsultatzeko eta tramitazio-aplikazioetara sartzeko.  
D.- Erregistroa sartu, Gregistro aplikaziotik dokumentazioa erregistratu eta kontsultatzeko.
- 
- 75 Herritarrentzako Arreta. Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko prozesua, espazio fisikoari dagokionez: (Aukera ezazu OKERRA)** 23
- A.- Zerbitzuaren kalitateari buruzko lehen mezua dira herritarrei laguntzeko bulegoak.  
B.- Espazio fisikoak transmititzen dituen sentsazioak eta sortzen dituen pertzepzioak baldintzatzen ditu zerbitzuak.  
C.- Lanerako mahai eta espazioak arreta-lekuaren parte dira.  
D.- Lan-mahai eta -espazioek bat etorri behar dute lekuak ematen duen irudi korporatiboarekin.
- 
- 76 Herritarrentzako Arreta. Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko prozesua, presentzia profesionalari dagokionez: (Aukera ezazu OKERRA)** 23
- A.- Arreta-langileen presentzia fisikoak, haien itxurak, ez du baldintzatzen zerbitzuari buruz izan daitekeen sentsazio globala.  
B.- Arreta-langileen presentzia fisikoak, haien itxurak, jarrera bat edo beste sortzen du, aurreiritzik, eta hartatik abiatuta zuzenduko zaizkio herritarrek agenteari.  
C.- Irudiaren inguruko gutxieneko arau batzuk betetzea komeni da, lana hobetzen lagunduko baitute.  
D.- Gure itxuran ahalik eta neutraltasunik handiena erakusten saiatu beharra daukagu.
- 
- 77 Herritarrentzako Arreta. Helburuak eta zereginak. Hau da Herritarrei Laguntzeko Atalaren helburu orokorra: (Aukera ezazu OKERRA)** 24
- A.- Udal sail eta zerbitzuekin elkarlanean jardutea, tramiteak eta informazio-kanpainak diseinatu edo moldatzeko.  
B.- Herritarren eta Udalaren arteko harreman-lekua izatea, informazioa eskuratzeko.  
C.- Udal-administrazioa modernizatzea, tramiteak erraztuz.  
D.- Herritarrei eskatzen zaien dokumentazioa murriztea.
- 
- 78 Herritarrentzako Arreta. Helburuak eta zereginak. Informazioa jaso eta zabaltzea. 010 kanalaren bitartez. (Aukera ezazu OKERRA)** 24
- A.- Zabalkunde-kanpainak egiten dira herritarrei udal-ekimenen berri emateko, hala nola zergak gainordainik gabe ordaintzeko epea luzatzea.  
B.- Gasteizko beste erakunde batzuei eta horien jardueri buruzko informazioa ematen da: Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza.  
C.- Inkestean bitartez, herritarren iritzia jasotzeko antena gisa baliatzen da: hainbat udal zerbitzuren funtzionamendua eta hobekuntza.  
D.- Udal zerbitzuen funtzionamendua dela eta herritarrek Herritarren postontzian aurkezten dituzten kexa eta iradokizun guztiei erantzuten zaie.
- 
- 79 Herritarrei albiste txarren bat eman behar diegunean, nola jokatu behar dugu? (Aukera ezazu OKERRA)** 25
- A.- Esateko duguna nolabait mingarria dela ohartaraziko diegu, prestatzen joateko.  
B.- Gertatzen dena argi azalduko diegu, zain eduki gabe.  
C.- Eman ditzakeen pausoen eta eskura dituen aukeren berri emango diegu herritarrei.  
D.- Albiste txarra aurrez aurre emango diegu, eta leku publiko batean.

**80**

**Gure eguneroko jardueran, honelako barrera eta oztopoek eten lezake  
herritarrekiko komunikazioa: (Aukera ezazu erantzun OKERRA)**

**25**

- A.- Estereotipoak.
  - B.- Atzeraelikadurarik eza.
  - C.- Enpatia.
  - D.- Erreduantzia.
-

- 2. ARIKETA. 40 galdera, launa erantzun-aukerarekin. - ASMATUAK: 1 puntu. - ZURIAK, BIKOITZAK ETA BALIOGABEAK: 0 puntu. - OKERRAK: -0,333 puntu. Eskuineko alboko laukian duzu galderaren erreferentzia, dagokizun suposizioarekin (S1 edo S2). S1.- 1. SUPOSIZIOA.** S1

Martínez familia, kolonbiar nazionalitatekoa, aldi batez Venezuelan bizi izan ondoren, Gasteizera aldatu da. Senar-emazteak, 17 urteko seme bat eta 13 urteko alaba bat dira. Lagun kolonbiar batzuekin biziko dira, haien jabetzako etxebizitza batean, eta bertan erroldatu nahi dute. Aldi baterako egoera izango da, Martínez familiak etxebizitza bat erosi baitu, eta hura eraberritzen ari baita. Komuneko paretak berriitu eta —lehenengoaren lekuan— galdara berria jarri beharra daukate. Bestalde, 17 urteko semeak maiz jotzen du Udalaren webgunera, eta herritarren udal txartela baliatzen du tramiteak egiteko. Duela gutxi, herritarrei laguntzeko bulego batera joan zen, HUTaren kopia eskatzera, galdu egin baitzuen. NANarekin eta argazki batekin joan zen bulegora. Arreta eman zion langileak esan zion txartel berriak 8 euroko kostua zuela, eta unean bertan ordaindu behar zenuela. Kobrantza horrekin ados ez bazegoen ere, ordaindu egin zuen, eta orain kexa aurkeztu nahi du, eta zenbatekoa itzultzeko eskatu, ez baitu ulertzen zergatik ordaindu behar den beste administrazio batzuetan doakoa den txartel batengatik.

- S2.- 2. SUPOSIZIOA.** S2

A.A.A. andrea, lanbidez arkitektoa, eraberritu nahi duen etxebizitza baten jabea da. Banaketa aldatu nahi du, zenbait pareta botata, eta egongelan eta sukaldean lekua irabazi. Jabea den aldetik, obra-lizentzia eskatu zuen, eta, horretarako, eskabidea aurkeztu zuen, paperean, erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetako batean. Gerora, dokumentazio gehigarria eskatu zion Udalak, eta epe barruan aurkeztu zuen, erregistro elektronikoa erabiliz. Jakinarazpen bat jaso berri du, eta, bertan, Udalak komunikatzen dio ez dagoela sarrerarik bere garaian eskatu zitzaion dokumentazio gehigarriarekin, eta, beraz, ukatu egiten diote eskatutako obra-lizentzia. Berraztertze errekurtsoa aurkeztea erabaki du A.A.A.k, egindako erregistro elektronikoen egiaztatzea gordea baitauka. Gainera, Gasteizen azken 5 urteetan emandako obra-lizentzien zerrenda estatistikoa bat eskatu nahi du —tipologiaren arabera bereizita—, Gasteizi buruz egiten ari den interes publikoko azterlan sozio-ekonomiko batean baliatzeko. Herritarren Udal Txartela eta BakQ ditu, eta bitarteko elektronikoak baliatuz egingo du eskabidea. Eskatutako informazioa posta arruntez bidal diezaiotela nahi du.

- 81 Lagunen etxebizitzan erroldatzeko, zein dokumentazio aurkeztu behar dute, etxebizitza horrekin duten erlazioa justifikatzeko?** S1

A.- Higiezinaren jabetza-eskiriturak.  
B.- Erroldatzeko gonbita, etxebizitzan erroldatutako jabeak sinatuta.  
C.- Kosturik gabeko alokairu-kontratu bat, etxebizitzan erroldatutako jabeetako batek sinatuta.  
D.- Arrazoizko zenbateko bateko alokairu-kontratu, etxebizitzan erroldatutako jabe batek sinatuta.

- 82 Martínez familiak ez badu egoitza-baimen iraunkor edo iraupen luzekorik, bi urtean behin jakinarazi beharko dute udalerrian bizi direla, honen bitartez:** S1

A.- EBGEBA berrituz.  
B.- EZ EBGEBA berrituz.  
C.- Aldi baterako egoitza-baimena eta etxebizitzaren jabetza-eskiriturak aurkeztuz.  
D.- Pasaporteak eta etxebizitzaren eskiriturak aurkeztuz.

- 83 Aurreko galderako tramitea hauek egin behar dute:** S1

A.- Adinez nagusiek bakarrik, arreta-bulegora joanda.  
B.- Adinez nagusiak nahiz adingabeak behartuta daude arreta-bulegora joatera.  
C.- Adinez nagusiak behartuta daude arreta-bulegora joatera, eta 16 urtetik beherako ordezkarik gisa jardun dezakete.  
D.- Gurasoetako batek, familia osoaren ordezkarik gisa.

- 84 Martínez familia lagun etxebizitzan erroldatzearen ondorioz egokitzen bada zazpi pertsona baino gehiago egotea erroldatuta bertan:** S1

A.- Martínez familiak jabetzan duen etxebizitzan erroldatu beharko du.  
B.- Ezin dira erroldatu, erroldatu nahi duten etxebizitzan.  
C.- Errolda zuzenean Errolda Atal Teknikoan egiten den kasuetako bat da.  
D.- A eta C erantzunak zuzenak dira.

- 85 Erroldatu ondoren, nolako agiria eskuratu ahal izango du Martínez familiak?** S1

A.- Banako errolda-agiria.  
B.- Bizikidetzaren errolda-agiria.  
C.- Agiri historikoa.  
D.- Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.



- 86** Zein izango lirateke errolda-mugimenduak, lehenik lagunekin erroldatzen badira eta gerora beren jabetzako etxebizitzan? S1
- A.- Alta, kontsul-etxearen bitartez, eta ohiko bizilekuaren aldaketa.  
B.- Alta, atzeritik etorruta, eta ohiko bizilekuaren aldaketa.  
C.- Alta, atzeritik etorruta, eta banako bizileku-aldaketa.  
D.- Omisioagatiko alta eta ohiko bizilekuaren aldaketa.
- 
- 87** Datu horietatik, zein ez dute nahitaez eman behar Martínez familiako kideek Gasteizko Udaleko udal-erroldan alta tramitatzeko? S1
- A.- Titulazio akademikoa.  
B.- Izen-deiturak.  
C.- Identifikazio-agiriaren zenbakia.  
D.- Harremanetarako telefonoa.
- 
- 88** Zein dira Gasteizko Udalak norberaren jabetzako etxebizitzaren Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzeko gaituta dituen ordainketa elektronikorako bitartekoak? S1
- A.- Legezko erabilerako dirua.  
B.- Kreditu- edo zordunketa-txartela.  
C.- Txeke adostua.  
D.- Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 
- 89** Ordainketa-egiaztagirian hau jaso beharko da: (Aukera ezazu erantzun OKERRA) S1
- A.- Zenbatekoa.  
B.- Zerga-kontzeptu edo prezio publikoa, eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerak.  
C.- Zerga-kontzeptu edo prezio publikoak eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerak erreferentzia egiten dioten aldia.  
D.- Zordunaren izena, izen soziala edo izendapena.
- 
- 90** Martínez andrea ez badago ados ordainagiriaren zenbatekoarekin, zer bide balia ditzake erreklamazio-idazkia aurkezteko? S1
- A.- 010 telefonoa.  
B.- Telematikoa, edozein administrazio publikoren egoitza elektronikoaren bitartez.  
C.- Aurrez aurrekoa, administrazio publiko batean erregistro-gaietan laguntzeko bulego baten bitartez.  
D.- A eta C erantzunak zuzenak dira.
- 
- 91** Erregistro-gaietan laguntzeko bulego batean dokumentu bat erregistratzean, zer emango liokete Martínez andreari, dokumentua aurkeztu eta elektronikoki erregistratu izanaren froga gisa? S1
- A.- Erregistratutako dokumentu elektronikoa emango dio funtzionario gaituak, aurkezte-data eta -ordua eta erregistroko sarrera-zenbakia ageri diren hartu-agiri automatiko batekin batera.  
B.- Hartu-agiri bat emango dio funtzionario gaituak, dena delako dokumentuaren kopia kautotua, aurkezte-eguna eta -ordua eta erregistroko sarrera-zenbakia jasotzen dituena.  
C.- Hartu-agiri bat emango dio funtzionario gaituak, dena delako dokumentuaren kopia autentikoa, non jasota geratuko baitira, ziurtagiri elektronikoko onartu edo kautotuaren bitartez, aurkezte-eguna eta -ordua eta erregistroko sarrera-zenbakia.  
D.- Hartu-agiri bat emango dio funtzionario gaituak, dena delako dokumentuaren kopia kautotua, non jasota geratuko baitira, ziurtagiri elektronikoko onartu edo kautotuaren bitartez, aurkezte-eguna eta -ordua eta erregistroko sarrera-zenbakia.
- 
- 92** Martínez andreak egoitza elektronikoan nahiz aurrez aurre erregistratzeko tramitea bukatzean: S1
- A.- Agiriak luzamendurik gabe bidaliko zaizkie hartzaileei eta dagozkien administrazio-atalei.  
B.- Egoitzan erregistratutako agiriak berehala bidaliko zaizkie hartzaileei, baina aurrez aurre jasotakoak hurrengo egunean bidaliko dira.  
C.- Kasu batean nahiz bestean, hurrengo egunean bidaliko zaizkie hartzaileei.  
D.- EVaren bidez erregistratua baino ez da berehalakoan bidaltzen.
- 
- 93** Zein udal zerbitzurako erregistratu behar da haren erreklamazioa, ebatz dezan? S1
- A.- Diru-bilketa Zerbitzua.  
B.- Herritarrei Laguntzeko Zerbitzua.  
C.- Zerga Kudeaketarako Zerbitzua.  
D.- Trafiko Zerbitzua.

- 
- 94** **Noiz galdatuko dio Udalak Martínez andreari nahitaez erabil dezala sinadura?** **S1**
- A.- Beraren adostasuna eta agiriaren erregistragarritasuna egiaztatze beharra duenean.  
B.- Eskabideak egin, erantzukizunpeko adierazpenak aurkeztu, ekintzetan atzera egin, eskubideei uko egin edo errekurtsuak aurkeztean.  
C.- Udal webguneko sinadura elektronikoko erregistro elektronikoko onetsi edo kualifikatua erabiltzean.  
D.- A eta B erantzunak zuzenak dira.
- 
- 95** **Obra egiteko, zein baimen-mota eskatu beharko du Martínez familiak?** **S1**
- A.- Munta txikiko obra txikia egiteko baimena (DRE).  
B.- Obra txiki laburtua egiteko baimena.  
C.- Obra txiki arrunta egiteko baimena.  
D.- Munta txikiko obra handia egiteko baimena (DRA).
- 
- 96** **Agiri hauetatik, zein ez da aurkeztu behar baimen hori eskatzeko?** **S1**
- A.- Obra txikiaren proiektu teknikoa.  
B.- Obra txikirako eskabide-orria.  
C.- Aurrekontua.  
D.- Ez A eta ez B.
- 
- 97** **Zein epe du Martínez familiak obrak hasi eta burutzeko baimena eman ondoren?** **S1**
- A.- 3 hilabete.  
B.- 6 hilabete.  
C.- Urtebete.  
D.- Ez dago epe zehatzik.
- 
- 98** **Noiztik izango du eragina obrari ekiteko erantzukizunpeko adierazpenak?** **S1**
- A.- Aurkezten den egunetik, Udalak balia litzakeen kontrol- eta ikuskatze-eskumenak gorabehera.  
B.- Aurkezten den egunaren biharamunetik, Udalak balia litzakeen kontrol- eta ikuskatze-eskumenak gorabehera.  
C.- Aurkeztu ondorengo lehen egun baliodunetik, Udalak balia litzakeen kontrol- eta ikuskatze-eskumenak gorabehera.  
D.- Munta txikiko obra handirako lizentzian zehazten denetik.
- 
- 99** **Identifikazio-baliabide hauetako zein ez da balioduna Martínez familiak obra-lizentzia webguneko egoitza elektronikoen bitartez eskatzeko?** **S1**
- A.- NAN elektronikoa.  
B.- BakQ.  
C.- Herritarren Udal Txartela (HUT).  
D.- 'Izenpe' txartel berdea.
- 
- 100** **Txartelaren kopia lortzeko, ordaindu beharra al dago?** **S1**
- A.- Ez, HUT doan ematen da beti.  
B.- Bai, txartela galdu edo lapurtzearen ondorioz eskatzen bada kopia.  
C.- Bai, kostu bat finkatua dago ordenantza fiskalean, txartela galtzen denerako, eta, hurrenez hurren, arrazoi beragatik txartela eskuratzeko tramitea egin beharra dagoen bakoitzean handituz joan hori da.  
D.- Bai, txartela galtzen delarik, 8 euroko kostua du kopia egiteak.
- 
- 101** **Nola ordain dezake ordainagiria?** **S1**
- A.- Bulegoan bakarrik egin dezake, eta une horretan bertan; bestela, ezin zaio txartela eman.  
B.- Kontu-zenbaki bat emango diote bulegoan, dirua bertan sartzeko.  
C.- Edozein finantza-entitatetan, HUT jaulkitzeari dagokion tasa ordaindu behar duela adieraziz.  
D.- Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.
-

**102 Bulegoan emango dioten txartelaren kopia berriak, aurrekoaren pasahitza izango al du, webgunearen bitartez tramiteak egiteko?** S1

- A.- Ez, behin-behineko pasahitz bat emango diote bulegoan, txartela aktibatzeke nahitaez aldatu beharko duena.
- B.- Ez, pasahitz berria emango diote bulegoan, eta jasotzen duen unetik erabili ahal izango du.
- C.- Legezko ordezkariak sinatutako baimen-inprimakian tramiteak internet bidez egin ditzakeela adierazi badu bakarrik eman dakioko pasahitza.
- D.- Bai, nahiz eta txartelaren kopia egitean aurrekoari baja ematen zaion, pasahitza datu independentea da eta beti gordetzen da.

**103 Noiz iraungitzen da HUT?** S1

- A.- Ez da iraungitzen.
- B.- 5 urteren buruan.
- C.- 10 urteren buruan.
- D.- Lehen aldiz eskatzean aurkeztutako nortasun-agiria iraungitzen den egun berean.

**104 Herritarren postontzian kexa bat jartzea erabakitzen badu, zer bide ditu Martínez familiako semeak, tresna horretara sartzeko?** S1

- A.- Udalaren webgunea, 010 telefonoa, herritarrei laguntzeko bulegoak.
- B.- Herritarrei laguntzeko bulegoak, webgunea eta 010 telefonoa dira bitarteko bakarrak.
- C.- Webgunea eta 010 telefonoa dira bitarteko bakarrak.
- D.- Webgunea, 010 telefonoa eta mugikorra dira bitarteko bakarrak.

**105 Iradokizun bat egin nahi badu, Herritarren postontzia baliatu ahal izango luke?** S1

- A.- Ez, iradokizunak idatziz jasotzen dira, instantzia orokor batekin, 39/2015 Legeak jasotzen duen bezala.
- B.- Ez, Udalean ez dago prozedurarik ezarrita, ez baita herritarren horrelako ekarpenik izaten.
- C.- Bai, Herritarren postontzia herritarrekin komunikatzeko tresna bat baita, herritarren kexak, erreklamazioak, iradokizunak eta edonolako ekarpen edo zalantzak jasotzeko.
- D.- Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**106 A.A.A. andrea behartuta al dago Udalarekin modu elektronikoa erlazionatzera?** S2

- A.- Bai, horretara behartuta baitaude pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko entitateak eta elkargoko kide izatea nahitaezkoa den lanbideren batean dihardutenak.
- B.- Prozedurari ekiteko fasean aukera dezakete pertsona fisikoek administrazio publikoekin bitarteko elektronikoa baliatuz komunikatuko diren ala ez. Behin bitarteko hori aukeratzen delarik, ezingo da aldatu, inoiz.
- C.- Administrazio publikoekin bitarteko elektronikoa baliatuz komunikatuko diren ala ez aukera dezakete pertsona fisikoek, eta edozein unetan alda dezakete aukeratutako komunikazio-bidea, uko egitea dokumentu publikoan berariaz jaso.
- D.- Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**107 A.A.A. andreak eska al dezake Udalak lizentzia ukatzen dioneko ebazpenaren kopia?** S2

- A.- Bai, paper-euskarriko dokumentuen kopia elektronikoen dokumentua digitalizatu izana eskatuko dute, eta elektronikoki sortutako kode bat edo beste egiaztapen-sistemaren bat izan beharko dute, aukera izan dadin kopiaren egiazkotasuna kontrastatzeko, jaulki duen organo publikoaren artxibo elektronikoa sartuz.
- B.- Bai, paper-euskarriko dokumentuen kopia elektronikoa dokumentu elektronikoen paperezko kopia autentikoaren bidez emango dira, zeinek dokumentu elektronikoen balioa izango baitu bertan kopia-izaera ageri bada eta elektronikoki sortutako kode bat edo beste egiaztapen-sistema bat badu.
- C.- Bai, paper-euskarriko dokumentuen kopia elektronikoen dokumentua digitalizatu izana eskatuko dute, eta kopia direla egiaztatzen duten datuak jaso beharko dituzte, dokumentua kontsultatzean bistaratuko direnak.
- D.- Bai, paper-euskarriko edo digitaliza daitekeen beste euskarri ez-elektronikoren bateko dokumentuen kopia elektronikoen dokumentua digitalizatu izana eskatuko dute, eta kopia direla egiaztatzen duten metadatuak jaso beharko dituzte, dokumentua kontsultatzean bistaratuko direnak.

**108 Erregistro-gaietan laguntzeko bulego batean dokumentu bat erregistratzean, zer emango liokete A.A.A. andreari, dokumentua aurkeztu eta elektronikoki erregistratu izanaren froga gisa?** S2

- A.- Erregistratutako dokumentu elektronikoa emango dio langile gaituak, aurkezte-data eta -ordua eta erregistroko sarrera-zenbakia ageri diren hartu-agiri automatiko batekin batera.
- B.- Hartu-agiri bat emango dio langile gaituak, dena delako dokumentuaren kopia kautotua, aurkezte-eguna eta -ordua eta erregistroko sarrera-zenbakia jasotzen dituen.
- C.- Hartu-agiri bat emango dio langile gaituak, dena delako dokumentuaren kopia autentikoa, non jasota geratuko baitira, ziurtagiri elektronikoko onartu edo kautotuaren bitartez, aurkezte-eguna eta -ordua eta erregistroko sarrera-zenbakia.
- D.- Hartu-agiri bat emango dio langile gaituak, dena delako dokumentuaren kopia kautotua, non jasota geratuko baitira, ziurtagiri elektronikoko onartu edo kautotuaren bitartez, aurkezte-eguna eta -ordua eta erregistroko sarrera-zenbakia.

**109 A.A.A. andreak egoitza elektronikoan edo aurrez aurre egindako erregistro-tramitea bukatutakoan:** S2

- A.- Agiriak luzamendurik gabe bidaliko zaizkie hartzaileei eta dagozkien administrazio-atalei.
- B.- Egoitzan erregistratutako agiriak berehala bidaliko zaizkie hartzaileei, eta aurrez aurre jasotakoak hurrengo egunean bidaliko dira.
- C.- Kasu batean nahiz bestean, hurrengo egunean bidaliko zaizkie hartzaileei.
- D.- EVAren bidez erregistratua baino ez da berehalakoan bidaltzen.

**110 Nolakoa izan beharko luke Udaleko organo eskudunak A.A.A. andrearen errekurtsuari erantzuteko jaulkiko lukeen dokumentu elektronikoak, baliodontzat jo ledin?** S2

- A.- Euskarri elektronikoan artxibatutako edozein izaeratako informazioa eduki beharko du, identifikatzeko eta bereiziki tratatzeko moduko formatu baten arabera.
- B.- Galdatzen diren gutxieneko metadatuak jaso beharko ditu.
- C.- Jaulki den unearen denbora-erreferentzia jaso beharko du.
- D.- Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**111 Noiz galdatuko dio Udalak A.A.A.ri sinaduraren nahitaezko erabilera?** S2

- A.- Beraren adostasuna eta agiriaren erregistragarritasuna egiaztatzeko beharra duenean.
- B.- Eskabideak egin, erantzukizunpeko adierazpenak aurkeztu, ekintzetan atzera egin, eskubideei uko egin edo errekurtsioak aurkeztean.
- C.- Udak webguneko sinadura elektronikoko erregistro elektronikoko onetsi edo kualifikatua erabiltzean.
- D.- A eta B erantzunak zuzenak dira.

**112 Noiz aurkez dezake A.A.A.k dokumentu bat administrazio publiko baten egoitza elektronikoaren bitartez?** S2

- A.- Epeak zenbatzeari dagokionez, sarrera-egoitza elektronikoko egun-orduen arabera izango da administrazio bakoitzaren erregistro elektronikoa, eta, beraz, urteko egun guztietan aurkeztu ahal izango dira dokumentuak, 24 orduetan, igande eta jaiegunetan izan ezik.
- B.- Epeak zenbatzeari dagokionez, gaitutako sarrera-helbide elektronikoko egun-orduen arabera izango da administrazio bakoitzaren erregistro elektronikoa, eta, beraz, urteko egun guztietan aurkeztu ahal izango dira dokumentuak, 24 orduetan, igande eta jaiegunetan izan ezik.
- C.- Epeak zenbatzeari dagokionez, sarrera-denborak zigitatzeko plataformaren egun-orduen arabera izango da administrazio bakoitzaren erregistro elektronikoa, eta, beraz, urteko egun guztietan aurkeztu ahal izango dira dokumentuak, 24 orduetan.
- D.- Epeak zenbatzeari dagokionez, sarrera-egoitza elektronikoko egun-orduen arabera izango da administrazio bakoitzaren erregistro elektronikoa, eta, beraz, urteko egun guztietan aurkeztu ahal izango dira dokumentuak, 24 orduetan.

**113 Zein txartel erabili beharko luke A.A.A. andreak, dokumentu bat erregistratu nahi badu, egoitza elektronikoaren bitartez?** S2

- A.- HUT.
- B.- BakQ txartela.
- C.- Bi txartel horiek balia daitezke erregistro elektronikokoak egiteko.
- D.- Bi horietako bat ere ez. Udalaren webgunean erregistro elektronikokoak egiteko balio duen txartel bakarra Izenpe txartel berdea da herritarrentzat, eta urdina enpresentzat.

**114 Egin nahi duen obraren ezaugarrien arabera, zer obra-lizentzia mota eskatu zuen A.A.A. andreak?** S2

- A.- Obra txiki arruntaren eskabidea.
- B.- Munta gutxiko obra-txikiaren eskabidea (DRE).
- C.- Obra txikiaren aurretiko komunikazioaren eskabidea.
- D.- Obra txiki laburtuaren eskabidea.

**115** **Non entregatu dezake GYYY jaunak administrazio publikoetako organoei zuzendutako dokumentu bat?** **S2**

- A.- Zuzentzen zaion administrazioaren erregistro elektronikoa.
- B.- Espainiaren bulego diplomatiko eta konsul-ordezkaritzetan.
- C.- Administrazio horrekin lankidetzeta-hitzarmena duten posta-bulegoetan.
- D.- A eta B erantzunak zuzenak dira.

**116** **Eskabidea aurkeztu ondoren, noiz ekin dakioke egitekoa den obra gauzatzeari?** **S2**

- A.- Lizentzia eman izanaren jakinarazpena jasotzen denetik.
- B.- Eskabidea erregistro-gaietan laguntzeko bulego batean entregatzen den egun beretik.
- C.- Eskabidea erregistro-gaietan laguntzeko bulego batean entregatzen den egunaren biharamunetik.
- D.- Eskabidea erregistro-gaietan laguntzeko bulego batean entregatzen den egunaren ondorengo lehen egun baliodunetik.

**117** **Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergarekin batera, beste ordainketarik egin behar al da?** **S2**

- A.- Hirigintza-lizentziak eman eta hirigintza-zerbitzuak eskaintzeagatik ordaindu beharreko tasa.
- B.- Udalaren hirigintza-kudeaketaren kostu orokor eta administrazio kostuen tasa.
- C.- Bide publikoa okupatzeagatik nahitaez ordaindu beharreko tasa, jabe-komunitateari eragiten dioten obra guztietan bide publikoan uzten baitira materialak aldi batez.
- D.- A eta B erantzunak zuzenak dira.

**118** **Nola deritzo A.A.A.k egin nahi duen tramiteari, emandako lizentzien zerrenda estatistikoa eskatzen duelarik?** **S2**

- A.- Informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzeko eskabidea.
- B.- Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeko eskabidea.
- C.- Erakundearen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeko eskabidea.
- D.- Kudeaketa publikoari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzeko eskabidea.

**119** **Zer bide baliatuko du Udalak A.A.A. andreari erantzuna bidaltzeko?** **S2**

- A.- Posta arrunta, berak eskatu bezala.
- B.- Ez dauka aukeratarik, bitarteko elektronikoen bitartez bidaltzen baita beti.
- C.- Berak eskabidea bidaltzeko erabili duen bide bera.
- D.- Erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**120** **Publikoa al da txosten horretarako sarbidea?** **S2**

- A.- Ez, erakundeak duen barne-kontrola da, gardentasun-legea betetzen ari den.
- B.- Bai, Alkatetza eta Erakunde Harremanetarako Sailari eskatzen zaiolarik, interesduna izanez gero.
- C.- Bai, Udalaren webgunean argitaratzen da.
- D.- Erantzunetako bat ere ez da zuzena.